

Nafarkaria

• ostirala • 2000ko otsailaren 4a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Areso • Ika-mika handia dago gurasoen elkarteak sorturiko liburutegiaren inguruan
Itziar Alduntzi • «Mikrofonoaren menpean erori naiz»

Beteluko txoko ttiki bitxia

Donostiako hondartzetara joateko nafarrak jada ez dira N-130 errepidetik pasatzen. Nahiago dute autobiko lastertasuna. Betelu abiadurak ahazturiko herria dugu. Makina bat aldiz pasatu ginen Betelutik Donostiarako bidean eta inoiz ez ginen konturatu Araxes ibaiak sortzen duen haitzarteko landaretza zertxobait ezberdina dela. Han Beteluko artadia dago, isurialde kantabrikoan dagoen landaredi mediterraneoarreko naturgune ttiki bitxia.



Areso • Umeeek behar duten liburutegia

Bi urtez irekita egon ostean, Udalak liburutegian sartzea debekatu die gurasoei

Nafarroa osoan gutxi izanen dira 310 bat biztanleko herriak 25 umerekin eskola dutenak. Azken hamar urte hauetan guraso elkartekoak arduratu dira zerbitzu horretaz.



Haurrak jostatzeko eta ikasteko lekua da Aresoko liburutegia. • ELI BELAUNTZARAN

BADIRA BI URTE ARESOKO eskolan guraso elkarteko kideak liburutegia osatzen hasi zirela. Herrian gaur egun 25 ume daude. Gurasoak pozik daude beraien umeak 12 urte bete arte herrian eduki ditzaketelako. Hori dela eta, guraso elkarteak sortu zenez geroztik lanean ari dira buru-belarri herrian atzematzen diren beharrei erantzuten.

Eskolarako lanaren bat egin behar zuten ikasleek Leitzako liburutegira joan behar zutela ikusita, gurasoek erabaki zuten liburutegia behar zutela herrian. Hasteko, entziklopedia baten liburukiekin bete zituzten apalak. Pixkanaka jendeak emandako liburuekin osatu zuten liburutegia, eta orain dela gutxi ordenagailu bat erosi zuten. Baina joan den igandean martxan jartzekoa baldin bazen ere, ordenagailuak kaxan jarrai-

tzen du, jartzeko lekurik ez dutelako.

Gurasoen elkarteko lehendakari Joxepi Marzolek azpimarratu du guraso elkarteak sortu zenez geroztik herrian hamaika ikastaro antolatu dituztela, umee eta gazte txoek egiten dituzten eskareei erantzun bat emanez. Hala ere, herrian ez dute laguntza handirik jaso, Udaketik batez ere. Eta urte hauetan bakarrik moldatu ondoren, Udalaren aldetik orain dena kontrolatuta edukitzeko nahi hori nahiko susmagarria iruditzen zaie, eta ezin dituzte onartu jartzen dizkieten oztupoak. Iruñean ere izan dira. Bilerak egin dituzte

Hezkuntza Departamentuko ordezkariekin. Baina hasieratik Udalaren eta guraso elkarteko ordezkarien artean konpondu beharreko arazoak direla esan diete. Orain, inspektorearen txosten baten zain daude.

Bitartean, inoren onespina jaso gabe, Udalak eskolako arkupe batean pareta bat altxatu du, eta, horrela, umeek zuten aterpe bakarra deuseztatu egin dute. Eskolako zuzendari Margari Zabalak azaldu duenez, jostaketan ibiltzeko zuten toki bakarra kendu diete. Udalaren esanetan, haien zatitan izanen den liburutegia egiten dute bertan. Eskolako maistraren

arabera, ordea, gimnasia joateko bidea itxi egin diete eta, obra itxusia izateaz gain, beraiekin kontsultatu gabeko lana denez ez dute erabiltzeko asmorik, duten liburutegiarekin oso gustura daudelako eta ez dutelako gela berri horren beharrik ikusten. Udal ordezkariekin duten harremana ona dela esan du Margari Zabalak, baina argi dute Udalak gurasoak eskolatik bota nahi dituztela eta nahi horren eta aferaren erdian umeek daudela, eta haien beharrik ahazten diren bitartean, kaltetuenak beraiek izanen direla.

→ Eli Belauntzaran

Elizondo • Bertso asteburua gaurtik aurrera

BAZTANDARREN BILTZARRA elkarteak antolatuta, gaur emanen zaio hasiera bertso asteburuari. Elizondon egiten dira ekitaldi guztiak, eta gaur arratsaldeko zazpitan izanen dute abiada Arizkunenea kultur etxean egiten den bertso tailerrarekin. Irakaslea Bittor Elizagoien izanen da, eta besteak beste erri-men, doinuen eta neurrien gaiak jorratuko ditu.

Ondotik, Santa Agedaren bezpera izanik, trikiti-xaren laguntzaz Elizondoko karrikei itzulua egiten zaie sainduari koplak kantatuz. Iñigo Iturralde antolatzailearen esanetan «politena denak baserritarrez jantzita joatea izango litzateke».

Bihar, bertso tailerrak jarraipena izanen du, arratsaldeko zazpitan. Jardunaldi honetako parte-hartzaileek bertsoak lantzen, aberasten eta epaitzen ikasiko dute. Azken gai honetan Joxe Urroz irakasleak parte hartuko du bere esperientziak azalduz.

Bertso asteburuari amaiera emateko, larunbaterako bertso afari bat antolatu du Baztandarren Biltzarra elkarteak Elizondoko Eskisaroi jatetxean. Afarira joan nahi duen guztiak aurretik 3.000 pezeta ordaindu beharko ditu. Xabier Silveira, Unai Iturriaga eta Jon Maia bertsolariak girotuko dute afaria. Afalondan, Bixente akordeoi jolearekin kantu zaharrak abestuko dira.

→ Matias Otxoa

zubian barna

BINGEN AMADOZ



Hilzorian zegoela ikusi zituen indioilarrak. «Indioilarrak!!!!, Oi, indioilarrak!!!!, zeinen ederrak diren», errepikatzen zuen. «Zeinen gustuko ditudan indioilarrak». «Indioilarrak nahi duzu jan?» arropostu nion. «Ez, ez», erantzun zuen, «politak dira, ederrak...».

Etxekoak ere aipatu zituen. Joandakoak. Gertuenak. Maitatuenak. Ama. Ahizpa. Bertan zituen, oraingoan azken pasabidean lagun. «Hementxe daude!», zioen negarrez, tunelaren ahotik sartzen hasi zenean. Handik aurrera

Indioilarra

indioilarrak topatu zituen eta haiekin batera naturaren edertasuna, hegazti koloretsuen lilara, haiei begira gozamina.

Ordura arte ez ziren bere bizitzan garrantziko izan. Nekazari zelarik ez zituen ikulluan eduki. Ez zituen hazi. Ez zen geroko bere hiritzitan haien aldera bereziki hurbildu. Ez ziren bere ahoan egon. Ez nion haietaz mintzatzeko aditu. Batek daki zergatik lagundu zuten heriotz-bidean.

Indioilarren lumetan joan zen. Hegalak zabaldu zituzten eta haien goreneko edertasunean

eraman zuten. Hegazti horiek itzultzen didate halere noiznahi. Gutxien espero dudanean. Berdin urruneko lurretan edota gertukoetan.

Gabon gaueko afarian gertatu zen azkenean. Barañaingo etxe hura ezezaguna zen niretzat. Azken momentuan aukeratu genuen horren esanguratsu den eguneko afaria egiteko. Urte askotan, ia nire bizitzako guztietan berarekin afaldu dut Gabon gauean.


Aurten, mahai aldean afaltzera jarri eta aurrez aurre zegoen apal batean, txiki, xume, zilarrezkoa, distiratsu... INDIOLARRA.

Baztan ●

Euskararen egoera

Gutxi erabiltzen da 25-65 urte arteko gizamultzoetan

Paula Kasares soziologoak, duela bi urte egindako ikerketa bat osatu nahirik, Baztanen dagoen hizkuntz errealitatea aztertu du. Hizkuntza uk(i/a)pena Baztanen izenburupean, txosten bat idatzi du ateratako ondorioekin.



Euskara asko erabiltzen da Baztango haur eta edadetuen artean.

● EGUNKARIA

1996 AN NAFARROAKO Gobernuak egindako ikerketaren arabera, Baztango populazioaren %80k badakite euskaraz, eta haraneko herri gehienetan kopuru hau %100era irits daiteke, baina datu hauek guztiak engainagarriak izan daitezke. Paula Kasares soziologoaren ikerketaren arabera, euskararen erabilera soziala bazterrekoa da Baztanen. Ondorio honetara iristeko kale neurketez baliatu da batez ere. Baztango Udaletxean duen euskara teknikari lanpostuan egin beharrekoak baliagarri izan zaizkio ikerketa burutzeko. Hizkuntzen mailaketa badago oraindik ballean; gaztelania beharrez-

kotzat hartzen da, nahitaez-kotzat, eta politikoki neutroa da. Euskara, ordea, alferrikakoa, bazterrezkoa eta politikoki markatua da. Haur eta zaharrek asko erabiltzen dute; gazte eta helduek, ordea, askoz gutxiago. Batez bestekoa ez da benetako egoera argitze-ko baliagarri, haurrena eta zaharrena pisurik gutxien duten gizataldeak baitira. Gizatalde hauek ez dira produktiboak, eta ez erreferentzialak ere, eta sozialki menpeko di-

ra. 15-24 urte bitartekoaren artean %80k dakite euskaraz, baina horien artean %30ek erabiltzen dute eguneroko bizitzan. Antzekoa gertatzen da 25-65 urte artekoekin. «Honek adierazten du erabilera marginala dela, bazterrekoa. Pixka bat muturrera joanda, benetako funtzio produktiboa, ekonomikoa eta kulturala duten taldeek euskara gutxi erabiltzen dutela esan daiteke, elebakartasun soziale-ira iritsi garela», ondorioztatu

du Paula Kasaresek bere txostenean.

Baztanen, garai batean gutxi ziren elebidunak; horiek, gaztelaniarekin, beren izena eta itzala goratzea bilatzen zuten; gaur egun, berriz, elebidun kopurua oso handia da, baina administrazio postu estrategikoetan, elite artistiko intelektualean hitzun mota erdalduna nabarmentzen da. Erdaldun elebakar horiek erreferentziazko komunitate dira, izen oneko.

«Pello Salabururen esaldi bat hartu nuen nire usteak konfirmatzeko: Baztangoa bezalako gizarte itxi batean euskararen alde egiten zuenari zeharka begiratzen zioten, nahiz eta hango biztanle gehienak euskaldun garbiak izan,» adierazi du Paula Kasaresek. Euskara naturala da, baina ez da beharrezkotzat jotzen. Baztan trantsizio prozesu batean sartua dago, jendeak ez du sinesten gizarte eskualduna bideragarria izan daitekeenik. Halere, sekula ez da izan hainbeste bitarteko hizkuntzaren normalizazioa lortzeko. Hezkuntzako datuak erabat normalizatuta daude: 10 matrikulatetik 9 euskarazko adarrean egiten dira. Hortaz, badago euskaldun kontzientzia daukan jende multzo bat, erreferentzia izan daitekeena.

→ Rakek Goñi



herri aldizkariak
Edurne Elizondo

Fernando Sarratea, eguraldiari so

Elkarrizketaren txokoa Fernando Sarratearen hitzak jaso ditu **Ttipi-ttapa** aldizkariaren azken zenbakiak, Ioana Iñiguezek sinatu artikulua bitartez. Donetebeko eguraldi iragarlea da Sarratea, eta bere lanaren ingurukoak kontatu dizkio **Ttipi-ttapa**ri: «Duela 20 urte inguru hasi nintzen. Ni ITGekin aritzen nintzen lanean, eta behin erran zidaten Pako Eraso, lehen hau egiten zuena, hil egin zela eta ia nik egiten nuen haren orde. Nik erran nuen aparatuak baserriaren ondoan paratzen bazituzten hartuko nituela datuak. He-

men paratu zituzten, eta ordutik bi aldiz aldatu dizkidate trasteak. Gero eta modernoagoak jartzen dituzte».

«Goizeko 08:30ak aldera hartzen ditut eguraldiaren datuak: euria egin baldin badu kantitatea neurtzen dut, eta gero temperatura haundi eta ttikienak hartzen ditut. Gero Caja de Ahorrosera igortzen dugu telefonoz goizeko 09:00ak baino lehen. Handik Iruñera, Nafarroako Gobernura bidaltzen dute. Iruñera bidali eta gero, 09:00etan puntu-puntuan berriz neurtzen dut. Beti ordu berean izan behar du, neguan

09:00etan eta udan 10:00etan. Datu hoiak txartel batean apuntatu eta Meteorologi Institutura bidaltzen dut hila-betero. Noizbait nik ezin badut nere alaba etortzen da».

«Azken aldi honetan franko nahasia dago eguraldia. Uste genuelarik hoztu behar zuela berotzen zuen, eta uste genuelarik berotu behar zuela haize hotza sartu eta hoztu egiten zuen. Nik ezagutu dudun temperaturarik beroena 38 gradokoa izandu da, 40 gradura ez da ailegatu, eta hotzera berriz 13 grado zero azpitik».



urdairen mintzoa

Xabier Larraburu

Sturnus Vulgaris

Arratsaldeko bost eta erdiak diren hauetan leihotik begiratu eta estornino-saldoen (Sturnus Vulgaris) ibilerekim lilitatzen naiz berriz ere. Gaur, bezperan baino hodeitsuagoa dugu arratsaldea eta, beraz, atzo baino ilunxeagoak dira neguko bost eta erdi hauek. Dena den, estorninoei bost axola erlojuen orratzak. Atzo seletan etorri baziren ere, orratzekin ez baizik eta iluntasunarekin egina dutenez hitzordua, jada multzo handietan biltzen ari dira, egunero bezala, Takonerako zedroen gainetik (Cedrus sp.). Iluntzeaz dagoenean, etxeko salan koloreak desagertzen direnean, altxatu eta salako argia pizten dut nik (Homo Homini Lupus). Gero leihora joaten naiz estorninoen gaueko bilera behatzera. Eta hortxe egoten dira, puntual-puntual, iparraldetik zein hegoaldeetik etorritako saldoak, gauaren atarian elkarrekin lo egiteko hiru, lau zuhaitzetan biltzen. Eta horrelakoetan eskerrak ematen diet nire jainko eta jainkosa ezzagunei. Disfrutatut egiten dudalako. Eskerrak ematen diet gixajo bat izateagatik eta ez, esate baterako, ekonomialaria. Bestela ez nuke gustura ikusiko zeruan osatzen ari den plaga madarikatu ale-jale nazkagarri hori. Eskerrak ematen diet Nafarroa Sainduko politikaria ez naizelako. Bestela nazka eginda nengoke hegazti-multzo guztiz inproduktibo eta harrapari horrekin eta nekazal munduko kexuekin. Disfrutatut ahal dudalako eskerrak ematen diet. Eta horrela, lasai askoan, milaka txori horiek ikusterakoa, galdera bitxiak sor daitezke. Ehundaka kilometrotan barreriatu egon diren txori horiek, nola jakin dezakete Takonera hor dagoela? Zergatik dute sateliterik gabeko GPS sistema horren garatua? Ehundaka mugimendu horiek bateratzeko nola egiten dute? Ba al dute inongo gidaririk? Hegan egiterakoan mutu daude, baina zedroetan (Cedrus sp.) pausatzen direnean, txili txilioka hasten dira, burrunba izugarria sortuz. Zergatik? Ornitologoek txilio horiekin beraien artean informazioa trukatzeko dutela uste dute: ea hegoaldean janaririk topatu duten, iparraldean eskaxia ote dagoen eta abar. Gainera, zonalde handi batean haletako zenbat dauden eta janaria guzietarako iritsiko ote den kalkulatzeko erabiltzen omen dute, haiek, txoriek, araba-zozok, estorninoek, Sturnus vulgaris horiek. ●

Beteluko artadia

Araxes ibaiaren aizpitartean dagoen artadi kantabriarraren inguruko liburutxo atera du Udalak

BETELUKO UDALAK ARGITARATU BERRI DUEN liburutxo batek jakinarazi digu Araxes ibaiak Betelu ondoan sortzen duen haitzarteko landaretza ez dela inguruetan dagoen landaretzaren berdina. Betelu isurialde kantabriarrean dago, hau da, bere urak Kantauri itsasora joaten dira. Baina Beteluko haitzarteko landareak mediterraniarrak dira.

Eduardo Gonzalez biologoak egin ditu liburutxoaren testuak eta marrazkiak, Ramon Ruiz Cabestanyren eta Juan Carlos Bascones Nafarroako Gobernuako ingugirotzekiaren laguntzaz. Beteluko artadiaren tokiko bidetik (4 km), Ruiz Cabestanyren laguntzaz, Arrixo gailurrera igo gara Beteluko artadia hobeki ikusteko. Ruiz zeramikagilea da eta Plazaola partzuergo tu-

Ongi dago Donostiara hiru ordu laurdenetan heltzea. Baina inoiz errepide zaharretik joatea ere ez dago gaizki. Orduan ikusiko dugu Malloak jai aretoa aurri-egoeran dagoela, Azpirozko errepideak zorabioa eragiten segitzen duela edota mendate azpiko jatetxeko ate eta leihoetan adreiluak paratu dituztela. Eta halako batean Betelu ageri da, Beteluko uraren herria.

ristikoko bideak lehengoratzten ibili da. Berak erakutsi eta irakatsi digu zertan datzan Beteluko artadi hori.

Haitzarteko giro berezia

Haizeak lastertasun handia hartzen du haitzartean sartzean. Haizea konprimatu eta berotu egiten da giroa lehertuz eta, aldi berean, landaredia astinduz. Hala, baldintza egokiak sortzen dira hosto goigor eta iraunkorra duten zuhaitz eta zuhaixkentangat bereziki, hosto bigun eta erorkorra duten haritzek eta zuhaixkek baino, hobeto jasaten baitute ebapotranspirazioa.

Araxes ibaiaren haitzarteko klimaren berezitasunei esker eta arteak egokitzeko duen ahalmenari esker iraun du Beteluko artadiak.



Beteluko artadian aurki ditzakegun zuhaitz (arte) eta zuhaixkek (gartxua, gurbiza, ereinotza...) egitura trinkoa eta itxia dute, zeinak ez dion haizeari sartzen uzten. Landare hauen hosto larrukara eta ilupatsuek haizea eta transpirazioa jasaten dute. Landare hauek egunez beroa metatzen duen harri askeko lurzoruaren gainean hazten dira. Haitzarteko kararizko hariztegiaren gainean ezartzen diren lurzoruak ahulak eta harritsuak dira, eta hezetasun guti hartzen dute gainazalean. Hori dela eta zaila zaie haritz eta pagoei bertan haztea. Hortaz, haitzartean landaredi mediterraniarra dago, nahiz eta, dagoen lekuaगतिक, kantabriarra izan beharko lukeen. Berezitasun horregatik Nafarroako Gobernuak Basogune Naturala izendatu zuen 1997an Zigadi-Beroate izen ofizialarekin.

«Dena dela unitate administratiboa eta unitate naturala ez datoz bat», erran du Ruiz Cabestanyk. «Artadia ez da babestu duten zatia bakarrik. Lizartzaraino hedatzen da tarteka».

Artadiaren jatorria eta bilakaera

Tertziarioaren bukaeran, duela hiru milioi urte, gaur egungoak baino giro lehorragoie eta epelagoie esker, artadiak, isurialde mediterraniarra hartzeaz gain, Bizkaiko itsasoko ertzean barneratu ziren. Kuaternarioan glaziazioen eta aldi epelago eta hezeagoen arteko alternantziak hostozabal kaduzifoliak (pagoak eta haritzak) hedatzea eragin zuen. Fluxu eta errefluxu horien ondorioz, artadi kantabriarrak leku jakin batzuetan gelditu ziren, Beteluko artadian adibidez.

Mendeetan zehar, artadiak egurrez, ika-



Beteluko artadian, bisitariak ez du naturaren ikusizun nabarmenagirik ikusiko. Baina ongi begirata, gauza anitz ikas daitezke.

OSKAR MONTERO

tzez eta bazkaz hornitu ditu Beteluko herritarak. XIX. mendean errotak sortu ziren, ibaiko urak bideratzen zituztenak, baita burdinolak ere. Garai hartan, kostaldetik Ebroko arroarako igarobide naturala zen ibarra, eta mandazaintzako eta dilijentziatarako bentak eta bideak egin zituzten haitzartean. Beteluk ere ur sendagarridun bainu-etxearen oparoaldia eta beheraldia eza-gutu zituen 1866tik 1966ra. XX. mendean, duela guti, errepideak autobiarri egin dio lekua eta Araxes ibaiak eta honen haitzartea interes berreskuratu dute ibilbide alternatibo eta berezi gisa. Bisitariak ez du naturaren ikusizun nabarmenagirik ikusiko Beteluko artadian. Baina ongi begiratu gero, gauza tiki anitz ikas daitezke.

Goikolaren ingurua

Herritik Goikola burdinolaren aurriaraino hamar bat minutuko paseo ederra dago. Dena den, zertxobait gehiago ibili nahi duenak Burdinolako bidea San Donatoko bidearekin lot dezake. Burdinolako bidean, kilometro erdi eskasean zera ikus dezakegu: Santa Krutz ermita, Beteluko uren lantegia, Urberoa ur epeldun harraska, bainu-etxe desagertuaren Iturri Santu iturriaren hondakinak, Dama Iturri iturria, bainutokia eta Goikola izeneko burdinolaren aurriak. Inguru hori olgetarako tokia da orain, eta bertatik Malloak hagitz polit agertzen dira. Autobiak Betelu albo batera utzi duenez, leku horren atontzea turismoa erakartzeko egin dutela pentsa dezake batek edo bestek. «Izan daiteke», dio Ruiz Cabestanyk. «Baina nik uste dut bertakoek paseatzeko leku polit bat izan dezateke egin dutela».

Asier Azpilikueta


Udalaren hainbat egitasmo

UDALAK HAINBAT ASMO DITU BETELU ETA INGURUAK ERAKARGARRIAGO egiteko. Mikel Rekalde alkateak azaldu duenez, bainu-etxea eraikitzea, Goikola burdinolaren ondoko ubidea atontzea eta burdinolaren ondoko etxea Natura Interpretatzeko Zentro bihurtzea dira egin nahi dituzten proiektu nagusiak. Helburua turismoa erakartzea da batez ere.

«Ubidea garbitu, txukundu eta konpontzeko laguntzak eskatu ditugu», azaldu du Rekaldek. «Ubidearen gainetik edo aldamean burdinolako bidea jarraituko genuke, eta ubidetik burdinolaraino ura ekarri. Eta gero, burdinolan, urarekin jokoren bat egingo genuke, ur-jauzia edo. Laguntzak ematen badizkigute, ubidea aurtin garbitu eta egokituko dugu».

Halaber, Udala duela bi urtetik dabil bainu-etxea eraikitzeko gestioak egiten. «Zaharren egoitza urte honetan hasiko da eraikitzen, baina bainu-etxearena ezin dugu ziurtatu. Bainu-etxea egiteko asmoak tinko jarraitzen du. Hori da Beteluko Udalak duen proiektu nagusia, zaharren egoitza dagoeneko lotuta baitago».

Rekaldek uste du turismoan indar handia hartu duela termalismoak. Beteluko Iturri Santuko ura sulfuroduna da, biriketarako eta larru kontuetarako oso ona. Eta Dama Iturri eta Iturberoko urak mineromedizinalak dira, giltzurrunentzat oso aproposak. «Ur horiek hor daudenez, turismoari begira apustua egin behar du Udalak eta arlo hori sustatzen ari gara», erran du Rekaldek. «Baina ahaztu gabe turismoa industria eta nekazaritzaren osagarri dela».



Betelutik Goikola burdinolaren aurriaraino hamar bat minutuko paseo ederra dago. Inguru hori olgetarako tokia da orain, eta bertatik Malloak hagitz polit ageri dira.

OSKAR MONTERO

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Baztango euskal idazleen berri laburra (1)

Baztango euskal idazleen berri ematen segitzen dugu hirugarren saio honetan, eta gure zerrendan aitzina eginik, hona hemen beste hiru egile: Martin Goienetxe, Damaso Etxeberria eta Damaso Legaz.



Martin Goienetxe (1845, 1847, *Elizondo*) Bonaparteren kolaboratzaile sutsua zen Bruno Etxenike urdazubiarak Elizondoko bere etxetik paper mordo helarazi zion printzeari 1856.eko irailaren 9an, Euskal Herrira eginko bidaletako batean Urruñan jaso zituenak; Etxenikek bilduriko materialen artean, Elizondoko erretorea izaniko Martin Goienetxeren hiru sermoi gutxienez badaude, 1845.ean predikaturiko Sorkunde Garbiaren egunerako sermoia, 1847.eko urtarilaren 17an predikaturiko San Antonioren sermoia eta 1847.eko abuztuaren 15ean predikaturiko Ama Birjinaren Jasokundearen egunerako sermoia. Hiru sermoi horiek, Baztango eta Otsagiko euskaran eginak dauden egile ezagunik gabeko beste hainbat predikurakin batera, Nafarroako Artxi-bategian dautza; alabaina, hauen irakurri ahal izateko ez da hara joan beharrik, honezkerok argitaraturik baitaude, Rosa Miren Pagola filologoak zuzenduriko taldeak *Bonaparteren Ondareko Eskuzkribuak* izenburuko bildumak Iparraldeko Goi-Nafarrerari eskeini lehendabiziko liburukian hain zuzen ere. Hiru prediku horiekin batera, gainera, Goienetxek Alonso Rodriguez XVI. mendeko josulagunak idatzitako liburutik eginiko itzulpen labur bat badugu, *Lección sacada de Rodríguez con algunas pequeñas variaciones y varias omisiones de retazos enteros*, 1782.ean Ibarra Lopez apezak Amikuzeko euskarara egin zuen antzera.

Damaso Etxeberria Iturralde (1834-1886, *Elizondo*) Borden jaio izanagatik ere, 1834.eko abenduaren 11n, zinez elizondarra genuen. Honen aita Berroetako Martin Luis Etxeberria izan zen, Baztango alkate eta Nafarroako Gerrate-Biltzar Karlistaren kide, Erreniegako borrokan zendu zena; ama, aldiz, Angeles Iturralde Aldekoa, Datue jauretxeko nagusia zen. Bere aita bezala, Damaso Etxebe-

rria Ibarreko alkatea izan zen, eta baita Nafarroako Gerrate-Biltzar Karlistaren partaidea ere. Ez zen oso idazle emankorra; alabaina, San Frantzisko Xabierkoari eginko bertso batzuen egilea dugu, 1857.eko urriaren 18an Bonaparte printzeak berak Elizondon bertan jaso zituenak. Goienetxeren predikuak bezala, bertso horiek argitaraturik ditugu, eta, beraz, ez dago artxibora jo beharrik irakurri ahal izateko. Argitaratua eman zituen lehenengoa Nikolas Alzola izan zen, 1967.eko Herriaren Lagunen aldizkaritxoan, eta berrikiago ere, jadanik aipatu Pagolaren bilduman ditugu irakurgai: «Nafarroko hume noblea / Catedratico Parisen / Ygnacio duzu seguitzen / Ceruac manic bidea / Itzala munduko fama gucia / Daucazu despreciatua. / O saindu miragarria / Apostolu famatua / Yguzu Javier escua / Artzeco zure vicia».

Damaso Legaz Laurenzena (1838-1902, *Arizkun*) Aiko ahetza zuen Damaso Legaz Laurenzenak, Abaurregainekoak baitziren Legaztarrak; ama, ordea, guztiz baztandarra zuen. Elbetekoa. Baztandar ere zegokiokoen Damasori beraz, Arizkunen sortu baitzen, 1838.eko abenduaren 11n. Irakasle partikular batekin latinak etxean ikasi ostean, Iruñeko Donibaneko apezgaitegian sartu zen 1854.ean erdietsi zuen ikasketa beka berezi bati esker, eta hortik aurrera eliz karrera ikusgarria egin zuen: apeztea 1863.eko maiatzaren 30ean egin zuen, eta urte bereko urrian Iruñeko elizbarrutiko apezgaitegira pasatu zen filosofia katedratiko moduan; hurrengo urtean, berri, teologia katedratiko izendatu zuen; 1866.eko azaroaren 5ean apezgaitegi kontziliarraren idazkari eta urte bereko urriaren 23an errektoreorde egin zuen; 1867.ean teologiako dokto-retza erdietsi zuen Valentzian;

1869.eko azaroaren 5ean Iruñeko apezgaitegiaren errektore izendatua izan zen, 1902.eko otsailera arte bete izan zuen lana; 1869.ean apezpikutegiko aztertzaile sinodala izan zen; 1883.ean, oposaketan gailendu ostean, kalonje lektoral bilakatu zen, hau da, Iruñeko kabildoaren teologo. Baztan aldera ere lantzean behin hurbildu zen, eta, horrela, 1875.ean Elizondoko errektore jardun zuen; alabaina, Iruñean zituen betebeharrak ez zituen utzi gogozko lanpostu hartan luzaro aritzea. Azkenik esan behar da aukera izan zuela Tarazonako nahiz Habanako apezpikua izateko, baina Euskal Herrian geratzea hobetsirik, aisa errefusatu zituen ohore horiek guztiak.

Euskararen nafar unibertso murritzuan berebiziko nortasunez gailendu zitzaizun Damaso Legaz, nahiz, egia esan, arraslan gutxi argitaratu zuen. Nafarroako aldundiak deitu euskara katedraduna aukeratzeko epaimahaikidea izan zen, baita orduko hainbat sariketa literario-tan ere. *Euskara* elkartekidea sorreratik beretik izan genuen, Campionendako kolaboratzaile aparta izan zelarik. 1891.ean Iruñeko Liburutegi Kristau Propagandistikoaren lehendakari aukeratu zuten, *La Avalanche* aldizkaria ateratzen zuen erakundearena hain zuzen ere, eta

Legaz 1902.eko azaroaren 17an hil zenean, orduko sinadura hantuenekin prestaturiko monografiko gotorra atera zen: Julio Aladill, Estanislao Arantzadi, Felix Amorena, Daniel Ziga Maio, Fermin Erize, Eustakio Ilundain, Juan Iturralde Suit, Cancio Mena, Hilario Olazaran, Frantziska Sarasate...

Joakin Maiak berak requiem-partitura bat igorri kolaboratu zuen, eta testu horiekin batera, Legazen beraren erdal sermoi bat eskeini zuten.



etorri ahalean

Patziku Perurena

Salaverrik Iñigoz

EUSKAL HERRIA KRISIAN omen dela eta, Joxeren sermoi zarpail batzuk leitzen aritu naiz. Txukunena atzenekoa: zorioneko Mirande, Baroja eta Gasseten ondoko. Honela dio pasarte batean: «Gure artean, Mirandek baino de-xente lehen, kontrajarpen hori erabili duen bat, J. M. Salaverria izan da, erlijiojera ekialdetar eta mendebaldarraren diferentzia Inazio Loiolakoari aplikatzeko:

«Erroma eta Jerusalem artean erabaki beharra zegoen, Ekialdeko izpirituaren eta Mendebalekoaren artean. Ekialdeko bideak Jesusen dotrineko sorburuberoa zeraman, hasierako argitasun hutsera, iturri eman-korrera; baina, aldi berean gehiegikeria astzetikoetara, azalpen gordinetara, desbideratze arriskutsuetara. Erromak ordea, jainkozko irudipen eta berokeria mistiko haiei guzietz kontzeko harresiak ipini zituen; Erroma tinkotasuna, autoritatea eta dogma zen. Sendotasun betiereko iraulezina. Erroma aukeratu zuen Iñigok.

«Haren mendebaldar petoaren sen zorrotzak sumatua zeukan kristautasun integrala, zinezko jesuitismoa alegia, ez zela ongi uztartzen gizaera europarrarekin. Kristau asmo hutsa, sekula izan ote liteke zinez errotik europar? Erroma, Aitasantutza eta Eliza erromatarraren zesarismoa egin dira Ebanjelioko izpiritu bihurtu eta mendebaldeko gizaerara egokitzearen kargu; eta halaxe izan zen posible Europa kristautu izanaren mirari harrigarria.

«Behar bada, europar gizaeraren historia erlijiozkoa bi kontrajarrera horien arteko burruka minera biltzen da... Europar gizonaren kristau izateko borondateari, bere gizaeraren benazko zentzuak berak egiten dio uko; bere izakerak eragiten dio hain zuzen Ebanjelioak gaitzesten duen guzia onestera.

«Harrotasuna eta burgoitasuna, ekintza eta kemenaren

aldeko jaiera, giza ahaleginaren aldeko fedea, indarraren itsumen, mugarik gabeko aurrerapen zaletasuna, etorkizunari beti baikor... Erromaren talentuari zor zaio hori guzia arima europarrak larritu gabe bereganatzeko eran bihurtu izana; hainbat pasarteren zuzenketak eginez, izkutapen zuhurrak, ezikus aproposak, ondorio larrienak arinduz edo kenduz; Erromako esperientzia politikoak bestek bete ez zezakeen lana, bere burua Ekialde eta Mendebalde arteko interpretari edo jainkoaren bitartekari eginez.

«Erromak badaki aski ongi Jesusen dotrina hutsak nor bere buruaren ukapenera eta nihilismo mistikora eragiten duela, edota komunismo lozorrotaile batera. Eta herri europarrak, batez ere germaniarrak, ez du bere buruaz etsi eta lo hartu nahi. Horregatik erakutsi du Erromak halako jakinduria Ekialdeko mistizismo eta abandonismo itsu haren izaera goxatzen. Ekialdeko arimarekin hain bat datorren Apokalipsiaren hasierako ideia goxatu du, batik bat.

«Aurren kristandadeko larritasun hura, gure mundu biribila belaxe deseginen zelako sineste izugarri hura, gero Kristoren sakrifizio salbatzailea bete ondoren ez zentzurik ez gertatu beharrik izanen ez duena. Erromak itxuraldatuko du eternitatearen sinestea asmatuz. Ez betikotasun zeruko hutsa, baizik lurrekoa, batez ere. Eliza betikotasuna da, sendotasuna... Eliza beti Erroma izanen da, eta Erroma betiereko hiria, sekulakotz munduaren erregetza ukanen duena».

Neronek euskaratu dizut eta tarteka moxtu. Ahaztua omen daukagu Salaverria, eta noiz-bait berreskuratu beharko omen dugu, baina nondik eta nola ez digu tutik esaten Joxek. Dena dela, Paisaje con figuras liburuko lehen partea leitu nuenetik, erdipurkeria urdinxka baino ez zaizkit egin apezkontuok.

Ziria

• Motxorrosolo •

Etorkizuna

ADOS! GUHARREK MAMITURIKO MOLDEETAN IBILBIKI, ZINEZ antzinatuko gara. Akort! Apoarena egia bilaka dadin, gustagarriak ez diren hainbat irentsi beharrean gaude. Prefosta! Ez gara gure baitakoak, baina bizi gaituenari kasu egin behar. Gisa horretako egokieretan, jaiok diren andana horien gibelegoa al da etorkizuneko gure marka?

Itziar Alduntzin

Euskadi Gazteko Esataria

«Mikrofonoaren menpean erori naiz»

EITBk banatzen dituen Iparragirre sarietako bat jaso berri du Itziar Alduntzin leitzarrak. Neska berritsu honek 23 urte ditu, eta dagoeneko Euskadi Gazteko Top Gaztea zerrenda mitikoaz arduratzen da, eta, dioenez, oso gustura dago egiten duenarekin.



• ELI BELAUNTZARAN

DONOSTIARAINO JOAN BEHAR izan du NAFARKARIAK Itziar Alduntzin topatu ahal izateko. Gipuzkoako hiriburura duela hilabete joan zen Itziar, aldaketaren beharrean zegoelako.

■ **Donostiako edertasunak liluratu egin al zaitu edo lan kontuengatik etorri zara hona bizitzera?**

Donostia gustukoa dut, eta orain hemen bizi naiz, baina ni leitzarra naiz, eta etxera ere oso gustura joaten naiz, batez ere amak despentsa betetzen didalako. Izan ere, etxekoandre ona naizela esan badezaket ere, sukaldean ez naiz oso ongi moldatzen.

■ **Euskadi Irratian hastea kasualitatez izan al zen?**

Ez dakit, baina txikitatik irratia gustuko nuen, egun osoa irratia entzuten izaten nintzen. Irratigintzan Euskadi Gaztean hasi nintzen, bekadun gisa, eta sei hilabete pasatu eta gero Euskadi Gazteko probetara aurkeztu eta hartu egin ninduten. Eta orain mikrofoaren menpean erori naiz. Hunkitu egiten naiz haren aurrean, eta erabat deskonektatzen dut.

■ **Iazko aldiak Uhinak astintzen saioa egiten zenuen, eta aurtengoan Topaleku. Nolako saioak dira horiek?**

Iaz lau orduz aritzen nintzen etengabe telefonoz hitz egiten, Plan plin plan tartea eta lehiaketa egiten. Niri jendearekin hitz egitea asko gustatzen zaidanez, entzule asko ezagutu nituen. Urte osoa eman nuen saio horrekin. Aurten, berriz, Top Gaztea zerrenda mitikoaz arduratzen naiz eta, zerrenda aurkezteaz gain, botoak jasotzen ditut.

Baina elkarrizketen tartea da gehien gustatzen zaidana, musika munduan harreman asko izateko aukera eman dit eta oso gustura nago.

■ **Iparragirre saria jaso berri duzu. Zer esna nahi du zuretzat sari horrek?**

Saria oso pozik jaso nuen. Nire lanaren fruitua dela pentsatzen dut, baina nire lankide guztiek ere merezi zuten;

lan handia egiten dutelako. Baina bati eman behar diote, eta Topaleku saioari eman izanak lana ardu handiagorekin egitera bultzatu nau. Egiten dudana hobetzeko gogoia eman dit. Esan zidatenean saria emanen zidatela zera pentsatu nuen: «Ematen badidate ongi dago, baina bihar hobeki egin beharko dut lana». Saria egongelako apal batean daukat, eta animoak emateko balio dit.

■ **Eta horrela izan al da saria duzunez geroztik?**

Beno, ni beti izan naiz oso kritikoa neure buruarekin. Topaleku-ko elkarrizketak ardu handiarekin egin behar izan ditut, Euskal Herriko musikarientzat egiten duten

lana proiektatzeko leiho bat delako. Esate baterako, Euskadi Gazteko maketa lehiaketan 288 talde eta bakarlari aurkeztu ziren, eta horietatik bakar batek eraman zuen lehiaketako saria.

■ **Egin beharreko elkarrizketak asko prestatzen dituzu.**

Bai, elkarrizketa bat erronka handia da. Elkarrizketa

bati sekulako errespetua diot eta, horregatik, prestatzerakoan, dokumentazio asko biltzen dut. Lor dezakedan informazio guztia bildu eta gero prestatzen ditut galderak. Elkarrizketak egiteko modu asko daude eta, ni neska serioa ez naizenez, jendea ez asperetzeko eta oso astuna ez izateko giro ona sortzen saiatzen naiz; naturaltasunez egiten ditut, eta hori entzuleak atzematen du. Nik, gainera, oso ongi pasatzen dut. Eta lana ongi ateratzen bada, ondoren oso gustura gelditzen zara.

■ **Zuri gustatzen zaizun musika mota Euskal Herrian topa al daiteke?**

Denetarik entzuten dut, momentuaren arabera. Skunk Anansie entzun dezaket momentu batean, eta beste batean Pearl Jam edo Kaha. Topaleku saioari esker jende asko ezagutu dut, eta elkarrizketatu ditudan guztiak benetan interesgarriak iruditu zaizkit. Baten bat aipatzekotan Jabier Muguruza aipatuko nuke, oso gizon elegantea iruditu zitzaidalako, eta oso jakituna. Egun, euskal musikariren eta taldeen artean denetarik aurki dezakegu, eta aniztasun hori da duten gauzarik onena. Nire ustez, talde eta bakarlariek gero eta serioago hartzen dute egiten dutena. Lehen beti gauza bera entzuten zen, baina gauzak asko aldatu dira, eta lan asko egin dela nabarmentzen da. Baina talde hauek duten muga nagusia merkatua da, oso txikia delako.

■ **Garbi geratu da jendea ezagutzea gustatzen zaizula, baina sari honek ez al du irratia esatariari ematen dion xarma hori desegin?**

Entzuleek ikusi egin naute-lako? Bai. Alde batetik amorrurru pixka bat ematen dizu. Denok egin dugun modura, askok idealizatu egiten zaituzte, eta ez dakit zer iruditu ote zaien entzuleei. Hasi nintzenetik nire saioa entzuten duen jendea ezagutzeko gogoia nuen, eta batzuk ezagutu ditut. Gauzak horrela dira, eta ezin dira aldatu.

soslaia

Bi urte Euskadi Gaztean aritu ostean, Itziarrek ilusio handiz jaso du ikus-entzuleek EITBko kazetariari eskaintzen dizkieten sarietako bat. Bere naturaltasuna denei iristen zaien horietakoa da. Askok gustatzen zaio barre-egitea, eta antzematen zaio bere saioetan. Jendea ezagutzea, lagunak egitea eta haiekin egotea ere oso gustukoa du, nahiz eta bere txikitako lagunak orain gutxiago ikusi.

Bere lanean gauzak ongi egitea du erronka nagusi, eta ordu dezente pasatzen ditu hori lortu nahian, baina iskanbila ere gustatzen zaio. Lau orduko saioa zuzenean egiten duenean lankideak sartu eta atera ibiltzea oso gustukoa du, horrek giroa laguntzen dio eta.

Musika atsegin du, noski; ozen jartzea, gainera; batez ere kotxean doanean. Dantza egitea ere bai, eta entzuleek sinesten ez badute ere, zuzenean dantzatzen du, musika, entzuteaz gain, bizi egin behar dela uste baitu. Zinema eta irakurtzea gustukoak ditu, baina bere zaletasun nagusia arropa da; merkealdian arropa erostea, alegia.

→ Eli Belauntzarán

NOSKI JATOR
PALEOLITIKOAN

Bartolo

Hara Bartolo bere Otsoarekin!!



Bartolo!
Hau ideia ona
izan duzun
animalia nezitzearena!!

Bai! Lehenago bere kasa
ibiltzen zen animalia
orain egunero-egunero
goiz eta arratsaldez
atera beharra!!



Zu bezelako
berri zailleekin
surrea egiten du
munduak

Hau abantaila!

Nafar Kronika

Pello Argiñarena

Inkisanzioa

Tomas de Torquemada espainiar inkisidorea ez zen Corellan jaio. Valladoliden sortua 1420. urtean, Avilan hil zen, 1498an. Familia judu bateko semea zen eta Nafarroako Erriberako nekazari girotik urrun hazi zen. Tuterako aurrezki kutxa batean lanean hasi ordez bere jaioterriko domingotarren ordenan sartu zen eta UPNen afiliatzea baino nahiago izan zuen Segoviako Santa Cruz komentuko priore izatea.

Sixto IV.a aita santuak Nafarroako Gobernuko lehendakariorde-tza betetzeko ardurarik ez zion eman, eta sortu berri zen inkisizioaren Batzorde Gorenerako hautatu zuen «garbitasunaren alde - ad abolendam» aginduaren bitartez.

Bost urte geroago Nafarroako lehendakari aukeratu ordez, inkisidore nagusi izendatu zuten, kristau fedearen kontrako ekin-tzei aurre egiteko xedeak lehentasun osoa zuelarik Nafarroa beste euskal herrialdeetatik urrun-tzeko helburuaren aldean. Lege zorrotzak argitaratu zituen Tomas de Torquemadak, ez euskara, Athletic, liburuak, abertzaletasuna, Idiazabalgo gazta, D eredia, toponimia edo sagardoa zapaltzeko, baizik eta sorginkeria, adulterioa eta kristautasunetik at bi-zi zirenak zigortzeko. Ustezko errudunen aitopenen lortzeko Torquemadaren agintaldian 3.000 lagun hil zituzten tortura-pean eta sutan kiskalirik. Bere eraginpean egotzi zituzten euskal-dunak Nafarroatik, barkatu, juduak Espainiatik. 1494. urtean, gaixorik eta bakarrik, karguak utzi zituen, eta lau urteren buruan hil zen. Amen.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Bera:** Numidia taldeak kontzertua eskainiko du, bihar, kultur etxean, 22:00etan, Xorroxin irriariaren aldeko kanpainaren barnean.
- **Aintzoain:** Lin ton taun Zestoako taldeak bere azkeneko lana aurkeztuko du, bihar, Artaian, 23:00etan.

BERTSOLARIAK

- **Ituren:** Bihar, eguerdian, Loizaletxe II.a, Jexux Mari Irazu eta Sebastian Lizaso ariko dira.
- **Uruña:** Igandean, 16:00etatik aurrera, jaialdia egingen dute Itsas-Mendi zinema gelan Sebastian Lizaso, Maialen Lujanbio, Xalbador II.a, Amets Arzallus eta Sustrai Kolina bertsolariekin.

ZINEMA

- **Iruña:** Gaur, Golem zinetokietan, 20:00etan, *Mifune* filma pantailaratuko dute, euskarazko azpitu-luekin; *Adar bakar* film laburra ere emanen dute.

HITZALDIAK

- **Atarrabia:** Adivasi elkarteak Indian dituen proiektuen berri emanen du (bufalo emeak erostea, putzuak eraikitzea eta indiar haurrak hartzea), gaur, San Nikolas parrokiari, 20:00etan.
- **Iruña:** Asteazkenean, Bixente Serrano Izko historialariak Nafarroaz hitz egingen du, Zaldiko Maldiko elkartearen, 20:00etan.

ERAKUSKETAK

- **Iruña:** Astelehenean ostiralerara, 19:30etatik 21:00etara, ikusgai izanen da, Zaldiko Maldiko elkartearen, Orreaga kultur guneak Nafarroaren in-

guruan prestaturiko erakusketa.

► **Zangoza:** Otsailaren 12 arte ikusgai dago, Vallesantoro kultur etxean, Medicus Mundiren *Guarani* argazki erakusketa, asteartetik larunbatera, 19:00etatik 21:00etara.

► **Atarrabia:** *Natura Donejakue bidean* erakusketa euskaraz ikus daiteke, igandetik otsailaren 13 arte, jubilatuen zentroan, 17:30etatik 20:00etara.

► **Zizur Nagusia:** Otsailaren 13 arte ikus daiteke Ana Casas, Marta Rueda eta Teresa Sabateren *Interiores* erakuske-

ta, lanegunetan 19:00etatik 21:00etara, igande eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

► **Bera:** Mundu osotik bilduriko 150 musika tresnatik goiti ikus daitezke otsailaren 26 arte, ortzegunetik igandera, 18:00etatik 20:00etara, kultur etxean.

► **Iruña:** Pintzel galerian (abujeras, 6) Koldo Sebastian, Eugenio Ortiz eta Felix Ortégaren margolanak ikus daitezke otsailaren 26 arte, 10:00etatik 13:30etara eta 16:30etatik 20:00etara.

IKASTAROAK

- **Iruña:** Nafarroako Gazte Kontseiluak osasun-hezitzaile izateko ikastaroa antolatu du otsailaren 22tik 27ra, drogomenpekotasunen prebentzeari aitzeko. Informazio gehiago eta izen ematea 948-234819 telefonoan.

BESTELAKOAK

- **Iruña:** Gaur, Amaiur udal ikastolan, 17:00etatik 19:00etara, euskal eskulangintza produktuen azoka egingen dute.



KRISTINA BERIAIN

Egun handirako prest

Goizeko bederatzia. Izenik gabeko Iruñeko karrika bateko etxe bateko balkoi batetik zintzilik, ezkon-jantzi bat. Bi edadetu begira ari dira. «Hara, Uhartetarren alaba ezkonduko zaigu azkenean», erran du batek. «Ohartu zara? Inoiz baino puztuago du sabela», berteak. Harategitik atera berri den andreak zera dio: «Itsusia da gero!». Antza, ederragoak dira ondoko trapuak. Eta azpian dagoen mukizuak gora egiten du tu. Bere txistu gaiztoa ez da jantziraino heltzen. «Eta ni hemen», dio jantziak. «Egun handirako prest». Gaur ere eguzkia atera da. Egunero-bezala sukaldeko trapuak argitu ditu. Atzo ez bezala ezkon-jantzi bati dirdira atera dio. Eta bihar ezkon-jantziak kutxa zahar baten iluntasuna ikusiko du.